



## Udaletxea (Durango)

Hiribilduko alde zaharraren erdian dago Artekale eta Zeharkalearen artean, planta errektangularreko eraikina da eta bolumen paralepipedo etzanekoa, bi pisu eta ganbara dauzka. Eraikuntzan materiale batzuk erabili ziren: silarria atarian eta adreiluak gainontzeko hormetan.

Fatxada nagusian elementu interesgarri guztiak biltzen dira. Beheko solairuan erdi-puntuko zazpi arkuetako ataripea dago, arku horiek pilareetan bermatzen dira eta horiek metopen eta trigilfoen friso batek elkarlotutako toskanar pilastrak dituzte bistan.

Solairu nagusian kontzejuko balkoiak garrantzi handia dauka. Balkoi horretara ateratzeko zazpi bao-ate daude; horietatik erdikoa nabarmentzen da hiribilduaren armarría jartzeko, erdian apurtuta dagoen frontoi triangular baten euskarria diren pilastra inguratzailerak baititu. Azken pisuan, ganbaran, argia arkuetan sartutako zazpi leiho soiletatik sartzen da.

Udaletxearen irudian berebiziko elementu bat goiko pisuak apaintzen dituzten margoak dira, figuratutako arkitekturez, maitasun istoriotxoez, musikoez, ehizaldien eskenez eta beste gai atsegin batzuek.

Durangoko udaletxea Bizkaian ohiko mota batekoa da, hau da, behean ataripeari eta lehenengo solairuan balkoidun batzargelari garrantzi handia ematen diona. Udal artxiboan dagoen dokumentazioan oinarriturik, Bizkaiko udaletxe zaharrenetarikoa dugu hau (1570), jatorrizko itxura aldatu duten eraberritze batzuk izan dituen arren. Inportanteena 1936ko borroka zibilaren ostean egin zen, orduan goitik behera berreraiki zen, jatorrizko ataripeari eutsiz eta margoak, Inazio de Zumarraga margolariak 1770ean egin zituen antzera, egin ziren berriro. Izan ere, arkupe klasizista antzinako eraikinaren aztarna bakarra izango zen. Eraikina harrigarria da, eraiki zen garairako planteamendu oso aurrerakoia baititu.

Udaletxearen diseinua Martin de Ibarguenek, El Escorial Monastegian lan egin zuen maisu harginak egin zuen. Hargintza lanez Bernabe de Solano, Martin de Urquiza eta Martin de Zabala arduratzen ziren eta arotziaz Juan de Anitua. 1587an teitlatua jarri zen baina ez zuten eraikina amaitutzat hartu 1609 arte, orduan durangar Juan de Garaik fatxadan erregen eta hiribilduaren armarría margotu baitzuten.

**Testua:** Ana Isabel Leis Alava.



### Udaletxea

Durango. (Artekale eta Zeharkale elkartzan diren gunean. Durango hiribilduko alde zaharraren erdian).

#### Inguruko beste leku interesgarri batzuk:

(Durango)

- Uribarriko Andra Mari eliza.
- Kurutzia Gurutzea.
- Santa Ana eliza.
- Etxezarreta Jauregia.
- San Agustin Komentua.

